

## Kontsumitzaileekin kontratua izenpetu aurreko informazioa

### 1. Triodos Bank N.V. Sucursal en España-ri buruzko informazioa

Triodos Bank N.V. Sucursal en España (aurreantzean "Triodos Bank NV SE"), W-0032597-G IFK-duna, honako helbidean dago: Calle José Echegaray 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas (Madrid) eta Madrilgo Merkataritza-Erregistroan (18.314. liburukia, 0. liburua, 150. folioa, 8. atala, M-317563. orria, 1. inskripzioa) zein Espainiako Bankuaren kontuko Erregistro administratibo berezian dago, 1491 zenbakiarekin. Triodos Bank NV SE Holandako Triodos Bank N.V. Sozietate Anonimoaren Espainiako sukurtsala da. Triodos Bank N.V. kreditu-entitatea da eta Zeist-en (Holanda) dago, Nieuweroordweg 1, 3704 EC helbidean, Herbehereetako Banku Zentralaren arabera autorizatuta eta erregistratuta dago, 21 21 97681 zenbakiarekin, eta baita Utrecht-eko (Holanda) merkataritza ganbarako Erregistro Publikoan ere, 30062415 zenbakiarekin (aurreantzean "Triodos Bank NV" edo "Bankua").

Triodos Bank NV S.E. banketxea Triodos Bank NV sozietate anonimoaren (aurreantzean, «Triodos Bank NV») Espainiako sukurtsala da. Sozietate anonimo hori herbeheretar nazionalitatekoa da (sozietate egoitza: Nieuweroordweg 1, 3704 EC, Zeist, Herbehereak), baimenduta eta erregistratuta dago Herbehereetako Banku Zentralean, 21 21 97681 zenbakiarekin, eta Utrecht hiriko Merkataritza Ganberan erregistratuta dago, 30062415 zenbakiarekin.

Triodos Bank NV SEk Espainiako Bankuaren eta Herbehereetako Banku Zentralaren ikuskaritza-pean jarduten du, likidezia eta gardentasun kontuei dagokienez. Era berean, Herbehereetako Banku Zentralak erregulatzen duen Gordailuak Bermatzeko funtsaren baitan dago, eta 100.000 euroko gehieneko estaldura du kontu eta gordailuen arloan. Aipatu funtsak ez ditu AGZ gain hartzen.

### 2. Kontsumitzaileentzako finantza zerbitzuei buruzko informazioa. Ezaugarri nagusiak

#### 2.1. Triodos Kontratu Orokorra (Contrato Global Triodos), kontu korrontea

Triodos Banken kontratu globalaren helburua da bezeroari gaitasuna ematea, merkaturatzeko eta zerbitzu egiteko bideak (gaur egun, presentziazkoa, telefonozkoa eta Internetezkoa) baliatuz Triodos Bank NV S.E. banketxeak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuetara sarbidea izan dezan.

Eragiketak errazteko, Triodos Kontratu Orokorra izenpetzeaz batera bezeroak kontu korrontea kontratatzen du, edota, dagoeneko kontu korrontea izango balu, berorren berri eman besterik ez du.

Kontu korrontea ageriko gordailua izango da ezinbestean, izenduna eta besterenezina. Hori funtsezko bitartekoa izango da diru-kopuruak jasotzeko eta ordaintzeko, transferentziak egiteko zein beste prozeduru edota zerbitzu osagarri batzuk helbideratu eta kontratatzeko.

#### 2.2. Ageriko aurrezki-kontuak

Ageriko gordailuak dira, kontu korronteen antzekoak, baina, funtsean, aurrezteko bitartekoa dira, eta kontu korronteen baino kargu-eragiketa gutxiago onartu ohi dute.

#### 2.3. Eperako gordailuak

Kontratutako epearen amaieran, inposizio bakoitzean adostutako ordainsariarekin batera, bezeroari itzultzen zaion diru-kopuru jakin baten epe finko baterako inposizioak dira.

#### 2.4. Maileguak eta kredituak

Mailegutza eta kreditu kontratuei dagokienez, Triodos Bank NV SEk diru kopuru jakin bat ematen dio bezeroari, eta bezeroak, kontratu bakoitzean zehaztutako baldintza eta epean, jasotako diru hori itzuli beharko dio bankuari, kopuru horri dagozkion interesak barne.

#### 2.5. Finantza-tresnak.

##### Akzioetarako gordailu zertifikatuak

Egun, Triodos Bank-ek finantza-tresna bakarra ko-mertzializatzen du, Holandako legeen mende dauden Akzioetarako gordailu zertifikatuak („AGZ“), alegia. AGZ honakoak jaulkitzen ditu: TRIODOS BANK N.V.ren AKZIOAK KUDEATZEKO FUNDAZIOAK (Foundation of Stichting Administratiekantoor Aandelen Triodos Bank (SAAT)). Hau Zeist-en (Holanda) dago, Nieuweroordweg 1, 3704 EC helbidean, eta Utrecht-eko (Holanda) merkataritza ganbaran erregistratuta dago, 41179632 Erregistro komertzialeko zenbakia-rekin. Bere kudeatzailea Triodos Bank NV sozietate holandarra da, eta berau Zeist-en (Holanda) dago, Nieuweroordweg 1, 3704 EC helbidean, Utrecht-eko (Holanda) merkataritza ganbarako Erregistro Publikoan baita ere, 30062415 zenbakiarekin.

Triodos Bank NV SE Espainiako sukurtsala AGZe dagozkien salerosketako aginduak jasotzera eta transmititzera mugatzen da, eta Holandako Triodos

Bank NV agin- duok exekututzeaz arduratzen da. AGZen titular iza- teak beren jabeen ahalbidetzen die AGZen titularren eta Bankuko akzionisten batzarretan parte hartzeko eskubidea, eta baita Triodos Bank NVren akzioen on- doriozko dibidenduak jasotzeko eskubidea ere. AGZek ez dute inongo balore merkatutan kotizatzen, eta Triodos Bank NVk AGZen barneko merkatu primarioa du. AGZak erosi eta saltzeko eragiketak uko egiteko eskubidetik at daude, berehala gauzatzekoa den alderdien arteko eroste edo saltze irmoko eragiketak direlako.

AGZen salerosketei eta haietatik lortutako plusbalio potentzialei (i), mozkinak banatzean titularrek jasotako dibidenduei (ii) edota jaulkitze hobaritik datozen erreserben kargura jaulkitako AGZ berrien doako harpidetzearen bidez lortutako ordainsari alternatiboari (iii) aplikagarri zaizkien zergei dagokienez, hertsatuki eskatzen dizugu behar bezalako aholkularitza har dezazun, betiere kontuan izanik hala zure inguruabar pertsonalak nola Espainiako legedia eta errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergetan zergapetze bikoitza saihestearren Espainiaren eta Herbehereen artean 1971ko ekainaren 16an egindako hitzarmena (BOE, 1972-10-16).

## **2.6. Zordunketa- eta kreditu-txartelak. Triodos Visa kreditu-txartela**

Triodos Bank NV SEren zordunketa- eta kreditu-txartelak eskuratzeko kontratuen bitartez, bezeroari zerbitzu ugari ahalbidetuko dion ordainketa modua eskaintzen dio bankuak; horrela, txartelaren erabilera baldintzatzen duen sistemaren arabera, bezeroak kutxazain-sareetan dirua atera ahalko du, ondasunak erosi ahalko ditu edo establezimenduetan beste zerbitzu batzuk kontratatu ahalko ditu. Zerbitzu horien ordainketa bezeroak Triodos Bank NV SE duen kontuko saldoari lotuta egongo da, zordunketa funtzionalitateen kasuan, edota zerbitzua kontratatu eta hurrengo hilabetean duen saldoari lotuta, kreditu funtzionalitateen kasuan.

## **2.7. Triodos produktuen espezialitateak: etekinak dohaintzan emateko aukera**

**2.7.1** Triodos Bank-eko kontu korrante, aurrezki kontu edota gordailu jakin batzuen bezero titularrek erabaki ahalko dute —kasuan kasuko informazioa webgunearen bidez nahiz sukurtsale- tan bertan eskura daiteke— Triodos Fundazioari, hilero edo aurretiaz adostutako aldizkakota- sunean, atxikipenen osteko etekin garbien zein ehuneko (%0, %25, %50, %75 edo %100) dohaint- zan eman nahi dioten. Etekinak Fundazioarentzat izan daitezke zuzenean, edota hari atxikitako erakunderen batentzat; kasu horretan, bezeroak erakundea aukeratuko du, Triodos Banken web- bgunean argitaratutako zerrendan oinarrituta, eta Fundazioak, urtero, etekinak emango dizkio erakundeari. Triodos Banken edozein produktutan, interesen dohaintza Triodos Fundazioak bideratzen du, fundazio hori arduratzen da dirua bezeroak

aukeratutako erakundeari emateaz. Bezeroak, urtero, ziurtagiri bat jasoko du, errenta aitorpenean zerga arintzeko. Zure dohaintzak jasotzen dituzten erakunde eta proiektuak ezagut ditzakezu [www.fundaciontriodos.es](http://www.fundaciontriodos.es) webgunean. Dohaintzei buruzko informazio guztia Banca Internet zerbitzuaren bitartez dago eskuragarri. Zure dohaintzak noiznahi kontsultatzeko, aldatzeko edo ezeztatzeko aukera duzu, Banca Internet edo Banca Telefónica zerbitzuak erabiliz, edo zure sukurtsalera etorruta. Erakunde parte hartzaile guztiak irabazi-asmorik gabekoak dira eta gizartean zein planetan aldaketa positiboa sustatu nahi dute, erakunde bakoitzak bere alor- rrean: gizartearen, ingurumenaren edo kulturaren ikuspuntutik eta Triodos Bank-en babesarekin, beti ere

**2.7.2** Triodos Fundazioak, Triodos Bank-ekin dituen akordioetan oinarrituta, produktu horien bezero titularrengandik jaso dituen dohaintzak urtero emango dizkio erakundeari, bezeroak, produktuak kontratatu zituenean (edo geroago aldaketak egi- tean), aukeratu zuen atxikitako erakundeari, hain zuzen ere. Edozein arrazoi dela eta erakunderen batek bere jarduna amaitzat emango balu edota Triodos Bank-ekin duen akordiotik kanpo geratuko balitz, bankuak eta Triodos Fundazioak eskumena dute dohaintzei dagozkien kopuruak bezeroak zehaztutako antzeko helburuak dituen eta Triodos Bankekin akordioa duen beste erakunderen bati emateko.

## **3. Tarifak eta komisioak**

Aplikatu beharreko tarifa eta komisioei buruzko informazioa Triodos Bank-en Espainiako sukurtsaleko [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webguneko “información legal” atalean duzu eskuragarri. Webgune berean “Folleto de tarifas” eta “Tablón de anuncios” dokumentuak topatu ahalko dituzu, besteak beste, eta azken horietan produktu eta zerbitzuen prezioak ageri dira (prezioak zehaztea posible ez den kasuetan, produktu eta zerbitzuen kalkulu-oinarria izango duzu eskuragarri).

2010eko uztailaren 8tik, finantza-entitateak ez daude derrigortuta Tarifan liburuxkan ordainketa zerbitzuen kasuan aplika daitezkeen komisioak (transferentzia, zordunketa eta helbideratutako ordainagirietan, kontu korranteetan, aurrezki-kontuetan eta txartelekin egin- dako eragiketetan oinarritutakoak) jasotzera. Hala eta guztiz ere, Triodos Bank-ek azken horiek boluntarioki txertatzea erabaki du, eta beharrezkoa da azaltzea bertan deskribatutako zerbitzuen komisioek maxima- izaera dutela eta edozein bezeroren kasuan (kontsu- mitzaile zein ez-konsumitzaile) aplikatu beharrekoak direla. Era berean, aipatu ordainketa zerbitzuen tarifak ez daude Espainiako Bankuak egiaztatu beharreko elementuen artean, eta, horrenbestez, Triodos Bank-ek ez du aipatu Organismoaren ikuskaritzaren beharrik tarifa horiek

aurrerago argitaratzeko edota aldatzeko.

## 4. Atzera egiteko eskubidea

Kontsumitzaile gisa eta beren jardun enpresarial edo profesionalarekin lotuta ez dauden pizgarriek bultzatuta jokatzeko duten bezero-pertsona fisikoek, Triodos Bank NV SErekin izenpetutako finantza pro- duktu edo zerbitzuaren kontratua atzera bota ahaliko dute, horretarako arrazoirik aurkeztu behar izan gabe eta inongo penalizaziorik gabe, atal honetan jasotako erregulazioari jarraiki.

**4.1. Epea:** Bezero kontsumitzaile-pertsona fisikoek atzera egiteko eskubidea exekutatu ahaliko dute, kontratua sinatu eta hamalau egun naturaleko epean, kontratua sinatu zuten egunetik zenbatzen hasita.

**4.2. Nola exekutatu:** Bezero kontsumitzaile-pertsona fisikoek epe horren baitan exekutatu beharko dute atzera egiteko eskubidea, honakoen bidez:

- Parte-hartzaile guztiek sinatutako eta helbi- de honetara bidali beharreko eskutitza: TRIODOS BANK N.V. SUCURSAL EN ESPAÑA, DEPARTAMEN- TO DE ATENCIÓN AL CLIENTE, C/ José Echegaray 5, 28232 Las Rozas, Madrid
- Telefono bidezko banka saioa (identifikazio- klabeekin).

**4.3. Eskubidea exekutatzearen ondorioak:** Bezero kontsumitzaile-pertsona fisikoek atzera egiteko es- kubidea zehaztu moduan eta epean exekutatuz gero:

**4.3.1.** Kontratu edo finantza-zerbitzua amaitut- zat joko da, atzera egiteko eskubidea exekutatu iza- naren ondorioz.

**4.3.2.** Bezeroak honakoa besterik ez du ordain- du beharko, ahalik eta lasterren eta atzera egi- teko jakinarazpenaren unetik zenbatzen hasita hogeita hamar egun naturaleko epean: Triodos Bank NV SEk kontratuaren arabera atzera egiteko uneraino bezeroari egiaz eskaini zion finantza-zerbitzua. Nolanahi ere den, ordaindu beharreko zenba- tekoak ez du gaudituko eskaintako zerbitzuari dagokion parte propor- zionala, kontratuaren estaldura osoarekiko, eta zenbatekoa ez da inon- dik inora ere zigortzeko modukoa bezain handia izango.

**4.3.3.** Bestetik, Triodos Bank NV SEk bezeroari honakoa ordainduko dio, ahalik eta lasterren eta bezeroak atzera egiteko eskubidea exekutatze- ko jakinarazpena igorri zuen unetik zenbatzen hasita hogeita hamar egun naturaleko epean: beze- roarengandik, kontratuarekin edo urru- neko finant- za zerbitzuarekin lotuta, jaso duen diru-kopuru oro, atzera egiteko unera bitartean bankuak bezeroari egiaz eskaini dion finantza zerbitzuari dagokion zenbatekoa salbu.

**4.4.** Atzera egiteko eskubidea aplikatzeko espa- rrua: :

**4.4.1. Esparru subjektiboa:** Atzera egiteko es- kubidea exekutatze eskumena duten bakarrak kontsumitzaile gisa eta beren jardun enpresarial edo profesionalarekin lotuta ez dauden pizgarriek bultzatuta jokatzeko duten bezero-pertsona fi- sikoak izango dira.

**4.4.2. Esparru objektiboa:** bezeroak atzera egite- ko eskubidea aplikatu ahaliko du, Triodos Bank NV SEk komertzializatzen dituen eta auke- ra hori es- presuki aurreikusten duten finantza produktu eta zerbitzuei dagokienez. Eskubide hori dokumentu honetan deskribatu banku- produktu guztiekin lo- tuta exekuta daiteke, Triodos Banken akzioetarako gordailu zertifika- tuen kasuan (AGZ) salbu eta Pentsio planak. Era be- rean, atzera egiteko eskubidea ezingo da aplikatu bi aldeek osotasunez exekutatu dituzten kontra- tuen kasuan, kontsumitzaileak espresuki esku- ta, berorrek atzera egiteko eskubidea exekutatu aurretik. Horren adibide dira transferentzia- aginduak eta kobratzea kudeatzeko eragiketak; dagoeneko existitzen diren edo eraikiko diren lur edo higiezinetan nagusiki jabetza-eskubideak mantentzeko edo eskuratzeko erabiliko diren kredituak; higiezinak berritu edo hobetzeko kredi- tuak; higiezin baten hipoteka edota higiezin baten gaineko eskubide bidez bermatutako kredituak; Nota- rioaren esku-hartzearekin egindako dekla- ra- zioak, baldin eta honek bezeroaren eskubideak bermatu direla ziurtatzen badu; bezeroak atzera egiteko eskubidea pertsona fisikoentzako Kon- tratu orokorraren kasuan aplikatuko balu, eta kontratu horri Triodos Bank NK eskaintzen di- tuen beste produktu edo zerbitzu batzuk gehitu bazai- zkie, aipatu produktu eta zerbitzuekiko lotura ere amaitutzat joko da, inongo penaliza- ziorik gabe.

## 5. Bezeroentzako arreta zerbitzua eta erre- klamazio zerbitzua

Ekonomia Ministerioak 2004ko martxoaren 11n emandako ECO/734/2004 aginduan (finantza erakunde bezeroarentzako arreta sail nahiz zer- bitzuei eta bezeroaren arartekoari buruzkoa) eza- rritakoari jarraituz, bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Sail bat, eta hari dagokio legez onartutako zeure eskubide eta interesei buruz aurkeztu ditu- zun kexa eta erreklamazioei arreta eta erantzuna ematea. Bezeroak zerbitzu horri aurkeztu beharko dizkio bere kexa eta erreklamazioak, dagokion erakunde ikuskatzailearen (Espainiako Bankua eta Baloreen Merkatuko Espainiako Batzordea) erreklamazio zerbitzuan edozein erreklamazio aurkeztu baino lehen. Orobat, jakinarazten dizugu ezen, araudi horri jarraituz, bankuak baduela Beze- roarentzako Arreta Sailaren Arautegia ere. Arautegi horren helburua da Bezeroarentzako Arreta Sail horrek bete beharreko betekizunak, prozedurak eta jarduera oro har arautzea, finantza erakunde be- zeroentzako arretaren eta gardentasunaren arloan

arauak betiere egoki betetzen direla bermatzearen. Arautegi hori bezeroen eskura dago. Bezeroek arautegia paperean bidaltzea eska dezakete, eta era berean eskuragarri dute bankuaren webgunean eta bankuaren bulego guztietan. Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, Bezeroentzako Arreta Sailarekin harremanetan jartzeko, bide hauek erabil ditzakezu:

- Telefonoz: 902 360 940 o 91 640 46 84.
- Posta elektronikoz: reclamaciones@triodos.es
- Helbide honetara idatzi bat igorritz:

Triodos Bank NV, sucursal en España Departamento de Atención al Cliente  
c/ José Echegaray, 5  
Parque Empresarial Las Rozas  
28232 Las Rozas, Madrid

Erreklamazioa Triodos Bank-eko Bezeroaren Arretarako Zerbitzuaren Sailean jarri ostean, erantzuna zure gustukoa ez bada, edo erreklamazioa eta harekin lotutako dokumentazioa aurkeztu zenituenetik bi hilabeteko epea igaro bada eta oraindik erantzunik jaso ez baduzu, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzuari idatzi ahalko diozu (Calle Alcalá, 48, Madrid), Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (Calle Miguel Ángel, 11, Madrid) edo Pentsioetarako Seguru eta Funtsen Zuzendaritza Orokorrari (Paseo de la Castellana, 44, Madrid), kontratatutako produktu edo zerbitzuaren izaeraren arabera.

## 6. Aplikatu beharreko legedia eta jurisdikzioa

Triodos Bank NV S.E. banketxeak eta bezeroek formalizatutako dokumentu honetan zehaztutako kontratu eta zerbitzuak Espainian indarrean den zuzenbideak araupetzen ditu.

Madrid hiriko (Espainia) auzitegiak beste inork ez du eskumenik izango bezeroaren eta bankuaren artean edozein arrazoiengatik sortutako edozein disputa ebazteko. Hala ere, bezeroari buruz eskumena izan dezakeen beste edozein jurisdikziotara eraman ahalko du bankuak auzia.

AGZak Herbehereetako legedian ezarritako araupetzen ditu.

Bankuarekiko kontratu harremanetik datozen ordainketak eta kobrantzak egiteko, Espainian legezko erabilera den dirua erabiliko da. Egun, euroa da diru hori, Espainia Europako Diru Sistemako kide denez. Ordainketa tokia, berriz, Espainia izango da beti.

Aldez aurreko informazioa, kontratu baldintzak eta kontratuen segimendua, eta horiei lotutako informazioa, gaztelaniaz egingo dira Espainia osoan.

Hala ere, beste hizkuntza batzuetako komunikazioak onartu ahalko dira etorkizunean.

# GALDERA ETA ZALANTZA OHIKOENAK

## Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ) jaulkitzeko kanpaina

### GALDERA ETA ZALANTZA OHIKOENAK ESKAINTZARI BURUZ

#### 1. Nola du produktuak izena?

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ)

#### 2. Zergatik dute “akzioetarako gordailuen ziurtagiriak” (AGZ) izena, eta ez “akzioak” besterik gabe?

Erantzuna ondo ulertzeko, beharrezkoa da Triodos Banken xedea eta egitura behar bezala ezagutzea. Triodos Bank kreditu-entitate independentea da, banku-jarduera garden eta jasangarria sustatzen duena. Gure printzipioak eta independentzia bermatzeko asmoz, Triodos Bank NVren akzio guztiak Triodos Banken Akzioak Kudeatzeko Fundazioari (SAAT, nederlanderazko siglekin) atxiki zaizkio eta harenak dira. Horrela, zilegi da bermatzea finantza-etekinak eskuratzeko erabakiak bankuaren xedearekin eta hark gizartearekiko eta ingurumenarekiko dituen helburuekin bat datozela.

Inbertitzaileek Triodos Bank NVren kapital sozialean parte hartzen dute, akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) bitartez, eta horiek Triodos Bank NVren akzioekin lotutako titulu negoziagarriak dira, aipatu akzioen eskubideen parte jakin bat atxikita dutenak, eskubide ekonomikoak batik bat. SAAT arduratzen da Triodos Banken AGZ jaulkitzeaz, partikularrek eta entitateek eskura ditzaten. Triodos Bank NVren akzioetan inbertitzea erabakitzen baduzu, Triodos Bank NVk kudeatzen eta SAATEk jaulkitzen dituen akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) titularra izango zara.

SAATEk dagozkion akzio guztien boto eskubideak mantentzen ditu, eta, horrela, Triodos Banken izaera eta kudeaketa eredia bermatzen ditu. Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriek (AGZ) ez dute burtsan kotizatzen, baina Bankuak barneko merkatua du ziurtagiri horien salerosketarako.

#### 3. Zein da AGZen entitate jaulkitzailea? Eta entitate kudeatzailea eta AGZk zaintzen dituen? Nork komertzializatzen ditu AGZk Espainian?

Entitate jaulkitzailea Triodos Banken Akzioak Kudeatzeko Fundazioa da (Stichting Administratiekantoor Aandelen Triodos Bank (SAAT, nederlanderazko siglei erreparatuz gero).

Triodos Bank NV banketxeak Herbehereetatik jarduten du, SAATEk eskuordetu duen AGZen kudeatzaile eta gordailuzaintzat, eta dibidenduen. Triodos Bankek jaulkitze-hobaritik datozen erreserba libreen kontura jaulkitako AGZ berrien doako harpidetzean datzan ordeko ordainsarien kudeatzailetzat dihardu. Halaber, AGZen barne merkatuan egindako AGZak harpidetu eta salerosteko eragiketa guztiak kudeatzearen arduraduna da.

Triodos Bank NV Sucursal en España da Espainian Gordailuen ziurtagiriak —Fundazioak Herbehereetan jaulki eta Triodos Bank NVk kudeatzen eta zaintzen dituenak— eskusiboki komertzializatzeaz arduratzen dena.

#### 4. Zergatik jaulkitzen ditu SAAT-ek, Triodos Bank NVren sozio bakar gisa, Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ)?

SAATEk Bankuaren printzipioak eta independentzia bermatzen ditu, eta, era berean, Triodos Bankek gizartearekiko eta ingurumenarekiko dituen xedeak babesten ditu. Triodos Bank NVren akzio guztiak SAATENak ere badira eta, hortaz, berau Triodos Bank NVren sozio bakarra da. SAATEk akzio bakoitzari lotutako boto eskubideak ditu, eta, horrela, Triodos Banken izaera eta kudeaketa eredia bermatzen ditu. Triodos Bank NVren akzioen boto eskubideei dagokienez, ez dago akzioen arteko alderik. Akzioetarako gordailuen ziurtagiriek (AGZ) azpiko akzioen eskubide ekonomiko berak dituzte, eta SAATEko patronatuko kideak izendatzeko boto eskubideak ere badituzte, Triodos Bank NVko Akzioetarako Gordailuen ziurtagirien Titularren batzarraren bitartez. Akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) boto eskubideak 1.000 bitora mugatuta daude asko jota, titularrak 1.000 AGZtik gora izan ditzakeen arren. Mugapen horren helburua da ziurtagi-



rien titular txikiagoen ordezkaritza bermatzea.

Ez dago jaulkitako kapitalaren %10etik gora, zuzenean zein zeharka, posizio agregatua mantentzeko zaurtagirien titularrik.

## 5. Zein da 2016ean jaulkitzen diren akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) kopurua, guztira?

Triodos Bank N.V. ren 4.000.000 akzioetarako gordailuen ziurtagiri, gehienez.

## 6. Zein da akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) balio nominala?

AGZen balio nominala, azpian dautzan akzioekin bat datorrena, 50 euro da.

## 7. Akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ) burtsan negoziatu al daitezke?

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriek (AGZ) EZ dute burtsan kotizatzen. Hala eta guztiz ere, Triodos Bank NVk, kudeatzaile gisa, Ziurtagirien salerosketarako barneko merkatua du, eta bertan ziurtagirien prezioa berorien likidaziozko balioaren arabera finkatuta dago.

Jaulkipen kanpaina baten testuinguruan AGZ berriak sortuko balira, esleipenak indarrean dagoen kanpainako Liburuxkaren arabera gertatuko dira. Triodos Bank NVk, jaulkitzailearen izenean, eskumena du Liburuxkaren baldintzekin bat ez datozen eskariak baztertzeko.

Triodos Bank NV banketxearen AGZak erosi edo saldu nahi badituzu, zure eroste edo saltze agindua barne merkatuko kontrako beste agindu batekin uztartuko da. Prozesu horrek itxarote denbora bat behar izan dezake, eragiketak uztartzeko. Triodos Bankek buffer izeneko erreserba ekonomiko bat du. Erreserba horren zenbatekoa sozietate kapitalaren % 2ren berdina da, eta titularrek erosi nahi dituzten AGZak erosteko erabiltzen da, haien aginduak AGZen barne merkatuko kontrako aginduekin uztartu ezin direnean. Hala ere, Triodos Bank NVk bere esku gordetzen du ekonomia-erreserba hori aipatu helbururako erabiltzeko edo ez erabiltzeko eskubidea.

## 8. Zergatik inbertitu beharko nuke Triodos Bank NVn, eta ez beste erakunde batean?

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ) erosis gero, bankuari lagunduko diozu, pertsonen, ingurumenaren eta kulturaren onura erdietsi nahi duten enpresa eta instituzioak finantzatzen jarrai dezan. Triodos Bank NVko akziodun bihurtuz, banku-sistema berria sustatzen duzu:

- **Denagatik:** banku europar independentea, jardun etiko eta jasangarriaren esparruan 31 urtetik gorako esperientzia duena. Negozioak egiteko bere eredia gardentasunean eta diruaren erabilera arduratsuan oinarritzen da, eta finantza errentagarritasuna gizartearen eta ingurumenaren errentagarritasunarekin batera uztartzen du.
- **Egiten duenagatik:** Triodos Bank jasangarriak diren eta etengabe garatzen ari diren sektoreetako jardueren finantziazioan espezializatuta dago. Sektore horiek hazkunde potentzial handia dute eta gaur egungo gizartearen eta ingurumenaren esparruko erronka esanguratsuenetarikoekin lotuta daude: energia berriztagarriak, nekazaritza ekologikoa, proiektu sozialak etab. Bere jarduna gauzatzeko, Triodos Bank NVk ekonomia errealeko proiektu eta enpresak zuzenean finantzatzen ditu, harreman zuzena du bezeroekin, ezin hobeto daki zein sektoretan inbertitzen duen, eta kudeaketaz arduratzen den profesional talde arduratsua du. Eredu zentzuduna, ekonomia errealekin zerikusirik ez duten finantza produktuetatik urrun.
- **Kontatzen dizulako:** bere gardentasun politikan oinarrituta, bankua hiru hilez behingo aldizkariak, hilabetean behingo txosten elektronikoak eta finantzatzen dituen enpresa eta ekimenen webgunez baliatzen da informazioa transmititzeko. Bezeroek badakite Bankuak beren diruarekin zer egiten duen.

Laburbilduz:

Banku-jardun etiko eta jasangarriaren oinarritutako Europako sistema eredugarrian parte har dezakezu, eta zure dirua etorkizun hobea eraikitzeko erabili. Sektore jasangarrietako eta ekonomia errealeko arloan hazkunde potentzial handia duten ekimenei lagunduko diezu.

Urteko aldi jakin batzuetan, daitekeena da bankuak sustapenak egitea, AGZekiko transakzioen ohiko kostuei dagokienez.

Gomendatzen dizugu kanpainaren liburuxka ofiziala irakurtzeko, ingelesez, edo haren gaztelaniazko laburpena, Herbehereetako Finantza Merkatuen Agintaritzan (AFM) erregistratuta daudenak. Liburuxkaren

laburpena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) ere topa dezakezu. Informazio hori [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean dago eskuragarri, eta bertan liburuxka ofizialaren gaztelaniazko itzulpen osoa irakurri ahalko duzu.

## **9. Nola kalkula daiteke gordailuen ziurtagiri baten balioa eta prezioa?**

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriek (AGZ) Burtsan kotizatzen ez dutenez gero, haien prezioa ez da burtsako kotizazioen arabera, Bankuaren likidaziozko balioaren arabera baizik (guztizko aktiboa ken pasibo galdagarria), zati jaulki AGZ kopurua.

Likidaziozko balioa egunero kalkulatu da, aurreko hileko kontabilitate-itxieran oinarrituta. Likidaziozko balioa jaulkitako AGZekin zatitu ostean lorturiko emaitza, unitate hurbilenera biribildua, AGZren prezioa da. Hau da, bankuaren likidaziozko balio berria zati jaulkitako AGZren kopurua ateratako prezioa unitate osoetan adierazitako aurreko prezioa 5 hamarrenetan baino gehiagoan gaitzen badu, gorantz biribiltzen da.

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) prezioak indarrean dauden hilabetean, egunero horien doikuntzak egiten dira, honako aldagarrietan oinarrituta:

- i) Espektatiba aldaketak, aurrekontuak exekutatzeko doikuntzen ondoriozkoak. Bankuak egunero aztertzen ditu eta kontabilitateko balio garbiaren kalkuluari gehitzen dizkio.
- ii) Espektatiba aldaketak, bankuaren jardueraren (bankuaren jardunaren ezusteko hazkundera edo txikitzea) edo beste faktore batzuen ondoriozkoak. Horiek AGZen balorazioan eta, horrenbestez, prezioan eragin dezakete.

Exekuzio-batzordeak faktore horiek aldizka aztertzen ditu, eta AGZen prezioak aldatzen ditu, bankuko aktiboen kontabilitateko balio garbian gertatutako aldaketetan oinarrituta. Aipatu edozein aldagarrien ondorioz beharrezkoa da balioa egunero zehaztea, eta horrek AGZen prezioaren unitate-biribiltzean aldaketarik eragingo balu, Exekuzio-batzordeak erabakiko du AGZen prezioaren doikuntza berria, gorantz edo berantz, egoeraren arabera.

## **10. Zenbat balio du gordailuen ziurtagiri batek?**

Akzioetarako gordailuaren ziurtagiriak (AGZ) duen prezioa, bankuaren webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) argitaratutako informazioan zehaztuta egongo da.

## **11. AGZ erosi edota saltzeko transakzio-koste jakin bat ordaindu beharko dut?**

Akzioetarako gordailuaren ziurtagiriak (AGZ) erosi edo saltzeko transakzioaren kostua, transakzioaren zenbatekoaren % 0,5 da; gutxienez 5 euro.

## **12. Adingabeak (seme-alabak/ilobak) diren senideen izenean inbertitu dezaket?**

Ez. Ziurtagirien titularra bakarra da, adinduna, eta nahikoa informazio izan behar du Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriei (AGZ) buruzko inbertsio-zerbitzua ezagutu eta ulertzeko.

## **13. Zergatik eman behar ditut datuak formulario bidez?**

Formularioan Triodos Bank NV SEko kontu-zenbakia zehaztu behar duzu, Bankuak kontu horretan esku-diruzko dibidenduei lotutako transferentziak zein beste edozein transferentzia edo kargu egiteko modua izan dezan, AGZk saldu edo erosiz gero. Horregatik, AGZ harpidetzeko beharrezkoa da Triodos Bank NV SEko bezero izatea eta entitate horretan kontu bat edukitzea, AGZren truke ordaindu ahal izateko. Horretarako, kontuan dirua sartu beharko duzu edo bertan nahikoa diru izan beharko duzu.

Triodos Bank NV SEko bezeroak izan ez arren AGZ erosi nahi dituzten pertsona juridikoek, lehenik eta behin, bezero izan beharko dute, eta horretarako beharrezkoak diren identifikazio- eta segurtasun-prozedurak jarraitu beharko dituzte. Horrela, legezko dokumentazio esanguratsuen kopia aurkeztu beharko dituzte (dagokion erregistroan jasotako sortze-eskritura, ordezkari eta ahaldunen NAN agiriak, nahikoa eskumen dituzten ordezkari edota ahaldunen izendapen-eskriturak, enpresaren IFKa, indarreko araudia-aren arabera informazio osagarria edo informazio-jakinazpenak, izendatutako ordezkari/ahaldunak identifikatzen dituen dokumentua, eta erakundearen estatutuen kopia), kapitalak zurrizteko eta terrorismoa finantzatzeko prebentzioari buruzko 10/2010 Legeak, apirilaren 28koak, eta haren garapen-araudiak aurreikusten duten indarreko araudia betetze aldera.

Bankuko bezeroak ez diren partikularrek ere aurretiaz bete beharko dute baldintza bera, eta horretarako beharrezkoak diren identifikazio- eta segurtasun-prozedurak jarraitu beharko dituzte, eta NANaren fotokopia gehitu beharko dute, sinadura ulergarriarekin batera.

Finantza-tresnen merkatuei du (MiFID) Espainiako garapen araudia (the “ohola”) jarraiki, CDA titularrek txikizkako bezeroei (pertsona eta enpresa txiki eta pertsona instituzionalen bezeroak), bezeroek profesional gisa sailkatu ahal izango dira (enpresa handiak eta instituzionala bezeroei) bezero eta aurkako alderdi hautagarriak (finantza eta inbertsio-zerbitzuak). Akzioetarako gordailuen ziurtagirietan (AGZ) inbertitu nahi duten bezero guztiei —baita bezero potentzialei ere— produktuaren komenigarritasun testa egingo zaie, MiFID araudiari jarraituz. Test horretan, bezeroaren ezaguerak eta inbertsio esperientzia balioztatu-tuko dira, bai eta produktuari berari buruz dituzten ezaguerak ere, zehazteko ea produktu hori egokia den bezeroarentzat, AGZen salerosketa aginduak jasotzeko, transmititzeko eta gauzatzeko zerbitzuak egitearen esparruan. Bankuak eskatuko dituen datu bakarrak izango dira produktuari berari buruz bezeroak zer dakien balioztatzeko behar edo komeni direnak; ez da beste informaziorik beharko.

#### 14. Nola eskura ditzaket akzioetarako gordailuen ziurtagiri (AGZ) berriak?

Bezeroa bazara:

- Internet Bankaren edo Telefono bidezko Bankaren bidez: zure kodeak eta erabiltzaile-izena eskura izan beharko dituzu.
- Gure bulegoetan: Oraindik bezeroa ez bazara, lehenik eta behin Triodos Bank NV SEn kontu bat sortu beharko duzu, zure izenean, bankuko bezero bihurtu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoak diren eta [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean topatuko dituzun identifikazio- eta segurtasun-prozedura guztiak bete beharko dituzu. Jadanik Triodos Bank NV S.E.ko bezeroa zarenean, akzioetarako gordailu-ziurtagiriak (AGZ) erosteko inprimakia bete beharko duzu, erabilitako kontratazio bidearen arabera eskatutako beste prozesu ororekin batera. Era berean, AGZe buruzko dokumentazioa euskarri iraunkorren jaso izana adierazi beharko duzu, eta AGZen arriskuei buruzko informazioko eta zerga-informazioko dokumentuak patxadaz irakurri beharko dituzu; bai eta, hala egokituz gero, bestelako informazio osagarria ere.

#### 15. Zein da egin dezakedan inbertsiorik txikiena?

Gutxieneko inbertsioa akzioetarako gordailuen ziurtagiri (AGZ) 1 da. Ez dago gehienezko inbertsio kopururik, baina ez da inondik inora ere posible, pertsona zein entitate gisa, Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagirien (AGZ) guztizko kopuruaren % 10etik gora edukitzea, zuzenean nahiz zeharka. Horixe jasotzen du SAATen Administrazio Baldintzei buruzko dokumentuak, [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean kontsulta dezakezunak.

#### 16. Zein da azken jaulkipenari lotutako dokumentazio garrantzitsuena?

- A) Kanpainarako Liburuxka ofiziala ingelesez, 2018eko ekainaren 14koa, Herbehereetako Finantza Merkaturaren Agintaritzan (AFM) erregistratua.
- B) Kanpainako Liburuxka ofizialaren gaztelaniazko itzulpena.
- C) Kanpainako liburuxka ofizialaren gaztelaniazko laburpena, AFMen erregistratua eta [www.cnmv.es](http://www.cnmv.es) webgunean argitaratua.
- D) Kanpainaren liburuxka komertziala. E) SAATaren Estatutuak (ingelesez).
- F) SAATaren kondizioa administratiboak (ingelesez). G) Triodos Bank N.V.ren estatutuak (ingelesez).
- H) Triodos Bank NVren 2015, 2016 eta 2017ko urteko txostenak, bakoitzari dagozkion auditoria txostenak barne.
- I) “Análisis del riesgo del producto de inversión CDA desde la triple aproximación de rentabilidad, seguridad y liquidez” dokumentua.
- J) AGZen titularrentzat garrantzizkoa den zerga-informazioa.

Inbertitzaileentzako <http://www.triodos.es/es/conozca-triodos-bank/quienes-somos/grupo/informacion-inversores/> webgunean, Triodos Banken kanpainari eta dokumentazio garrantzitsuari buruzko informazio oro jarriko dugu.

#### 17. Non eskura ditzaket dokumentu horiek guztiak?



www.triodos.es webgunean dituzu eskuragarri. Era berean, Triodos Bank NV S.Eri eska diezaiokezu dokumentuak zure etxera doan bidaltzeko, 902 360 940 telefonora deituz edo relacionconinversores@triodos.es helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

### **18. Zergatik jaulkitzen ditu SAATek, Triodos Bank NVren sozio bakar gisa, Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ)? Zer egiten du bankuak nire diruarekin?**

Bezeroek Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ) eskuratzen dituztenean bankuaren kapital soziala eta baliabideak hazi egiten dira. Kapital osagarriak Triodos Banken nazioarteko mailegu kopurua areagotzea ahalbidetuko du, eta, horri esker, Bankuak balio kulturalak sustatzen dituzten eta gizartearen eta ingurumenaren onurarako diren enpresa, instituzio eta proiektuak finantzatzen jarraitu ahalko du. Bankuaren maileguen kartera kontsulta dezakezu [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webguneako "Historias de la banca transparente" atalean.

### **19. AGZak beste titular batekin batera harpide ditzaket?**

Ez, AGZak titular baten izenean baizik ezin dira harpidetu. Hala ere, bi bezerok edo gehiagok horietako bakoitza titular den AGZetara elkar dezake titularkidetzat duten kontu bera.

### **20. Zein dibidendu eta errentagarritasun lor ditzaket AGZetan inbertituz?**

Triodos Bankek 1,95 € ordaindu zuen gordailuen ziurtagiri bakoitzeko 2015an.

Gordailu ziurtagiriek lortutako errentagarritasuna % 5,5 izan da azken bost urtean (iturria: Triodos Bank NV, 2015ko apirilaren 30eraino), eta % 5,5 izan zen 2015an. Iraganean lortutako dibidenduek eta errentagarritasunek ez dituzte etorkizuneko dibidenduak edo errentagarritasunak bermatzen.

### **21. Ba al dago AGZen inbertsioen errentagarritasuna kalkulatzeko auditoria independenterik?**

Bai. Triodos Banken 2015ko Urteko Txostenean, PricewaterhouseCoopers Accountant N.V. auditoriaren txostenaren aipamen esplizitua dago.

### **22. Ba al dago auditoriaren erregulaziorik?**

Bai, NIVRA, auditoreak erregulatzeko Herbehereetako erakundea.

### **23. Nola jasoko nituzke nire AGZetatik eratorritako etekinak?**

Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen zure ziurtagiriei dagozkien dibidenduak eskudirutan jasotzea aukera dezakezu. Eskudirutako dibidenduak, zergetatik garbi eta Espainiako eta Herbehereetako araudiari jarraituz dagozkion zerga atxikipenak egin ondoren, Triodos Bank NV S.E. banketxean irekita dagoen eta zure titulartasuneko den zeuk izendatutako kontu korrontean gordailutuko dira.

Bestetik, ordainsari alternatibo bat jasotzeko aukera ere baduzu; horrela, doako AGZ berriak eskuratu ahalko dituzu, erreserben kontura jaulkitako akzioekin lotutakoak, (jaulkipen-prima izendaturikoa), jaso beharko zenukeen dibidenduaren kopuru gordinari dagokion zenbatekoaren balio berarekin.

Ziurtagirien salerosketari aplikatu beharreko fiskalitateari eta horietan eskuratutako plusbalio potentzialei, irabaziak banatzean titularrek eskudirutan jasotako dibidenduei zein erreserben kontura eta doan eskuratutako ziurtagiri berrien bidezko ordainsari alternatiboari (jaulkipen-prima) dagokienez, gomendatzen dizugu behar bezala informatzeko, zure ezaugarri pertsonalak eta Espainiako legedia nahiz Espainia-Herbehereak Hitzarmena, 1971ko ekainaren 16koa (BOE 1972/10/16), Errentaren eta Ondasunen gaineko zergen esparruan inposizio bikoitza ekiditeari buruzkoa ("Espainia-Herbehereak Hitzarmena"), ahaztu gabe.

Errentaren eta ondarearen gaineko zergetan zergapetze bikoitza saihesteko Espainiak eta Herbehereak egindako hitzarmenari (BOE, 1972-10-16) jarraituz, gordailu ziurtagiriei dagozkien dibidenduen eskudirutako ordainketari atxikipena egin behar zaio jatorrian, eta % 15en zergak ordaindu behar ditu Herbehereetan. Atxikipen hori egin eta gero ordaindutako dibidenduaren gainean egingo da, Espainian, kapital higigarriaren etekinei dagozkien atxikipena. Dibidenduak Espainian deklaratu beharko dira, aurrezkiaren zerga oinarriaren barruan. Jatorrian (Herbehereak) egindako atxikipena kendu ahalko da.

Zure ziurtagiriei dagokien dibidenduaren ordainsari alternatiboa eskuratu nahi izanez gero, erreserben

kontura Gordailuen ziurtagiri berriak doan jasotzeko (jaulkipen-prima), ez duzu zergarik ordaindu behar.

AGZen salmentek eragiten dituzten plusbalioen kasuan, ez da beharrezkoa Herbehereetan zergarik ordaintzea. Salmenten ondorioz ondarezko etekinik gertatuko balitz, bezero espainiarrak plusbalio hori, aurrezkien zerga-oinarrian integratuko dena, Espainiako Errentaren aitortzearen txertatu behar du.

Erregimen fiskala bezero bakoitzaren ezaugarri indibidualen arabera da, eta etorkizunean alda daiteke.

Hortaz, gomendatzen dizugu, zure ezaugarri partikularrak kontuan hartuz, behar bezala informatzeko.

#### **24. Nola egin dezaket AGZen prezioaren jarraipena eta nola sal ditzaket?**

AGZen balioa Triodos Bank NV Sucursal España-ren [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean eta gure urteko txostenetan argitaratuko da. Informazioa uneoro eskura dezakezu 902 360 940 telefonora deituz, Triodos Bank NV SEN bulego zentralera jo dezakezu (Las Rozas-en, Madrid), eta baita honako hirietan topatuko dituzun bulegoetara ere: Coruña, Bilbo, Bartzelona, Madril erdigunea, Las Palmas Kanaria Handikoa, Palma Mallorakoa, Santa Cruz Tenerifekoa, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza.

Zure AGZk saldu nahi badituzu, bertaratuta egin dezakezu, edo 902 360 940 telefonora deitu eta identifikazio gakoak erabiliz, eta ohiko bideetako segurtasun prozedurei jarraituz. AGZ beste titular baten, senide baten edo zure legezko ordezkariaren izenean badaude, berorrek ere akreditazioak saltzeko agindua sinatu behar du.

Astero-astero, Triodos Bank NVk, AGZ jaulkitzen dituen SAAT Fundazioaren kudeatzaile delegatu gisa, salerosketa aginduak euren artean bateratzen ditu. Aginduok sisteman noiz erregistratu ziren kontuan hartuta bateratzen ditu Bankuak. Bateratze-eragiketak erosle eta saltzaileen artean egiten dira, eragiketarik amaitu arte. Dagozkien gastuak ondorioztatu ostean, Bankuak saltzaileei funtsak bidaltzen dizkie, eta erosleak titulartasun-baieztapenaren jakinarazpena jasotzen du. Bankuak bateratu ezin izan dituen salerosketa aginduen kasuan, merkatuan erreserbatuta geratuko dira, haien erregistro-dataren arabera, eta hurrengo astean ekingo dio Bankuak haiek bateratzeari.

Kontuan izanik barne merkatua ez dela truke merkatu antolatua eta arautua (burtsa den bezala), gomendatzen dizugu zure ohiko finantza aholkulariarekin kontsultatzeko, AGZk erosi baino lehen.

#### **25. Uka al dezake Triodos Bankek nire eskaria?**

Triodos Bankek eskariak ukatzeko eskubidea du.

#### **26. Zein dira Triodos Banken AGZetan inbertitzeko arriskuak?**

Arriskuei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, irakurri arretaz, mesedez, kanpainako Liburuxka ofizialeko (2018eko ekainaren 14koa) "Factores de Riesgo" atala. Herbehereetako Finantza Merkatuaren Agintaritzaren (AFM) erregistratuta dago, eta haren itzulpena [www.triodos.es](http://www.triodos.es) bankuaren webgunean topatuko duzu. Bestetik, eskuragarri duzu dokumentazio osagarria (ikus 16. galdera).

#### **27. Zeintzuk dira AGZ eskuratzeko batera izango ditudan eskubide ekonomiko eta politikoak?**

Gordailuen ziurtagirien bitartez, horien titularrek Bankuko akzioen eskubide ekonomikoak bereganatzen dituzte, bai eta Akzionisten Batzar Orokorrean joateko eta horretan hitz egiteko eskubidea ere. Titularrek honako eskubide ekonomikoak dituzte: likidazio posible baten ondoriozko kuota jaso dezakete, eskudiruzko dibidendua, edota ordainsari alternatiboa, doako gordailuen ziurtagiri berriak eskuratuz, erreserben kontura jaulkitako akzioekin lotuta (jaulkipen-prima izendaturikoa).

Urtean behin, AGZen titularrek gonbita jasotzen dute SAATen Ziurtagirien Titularren Batzar Orokorrean parte hartzeko. Titular bakoitzak 1.000 boto eman ditzake asko jota, AGZ gehiago eduki arren. Batzar horrek SAATEko patronatuko kideak izendatzen ditu, Patronatuak berak (aurretiaz Triodos Bank NVren Exekuzio-batzordeak onartu beharrekoak) aurkeztu dituen hautagaietan oinarrituta. AGZen titularrek ezin dute, inondik inora ere, ziurtagirien guztizko kopuruaren % 10 baino gehiago eduki, inongo pertsona zein erakunde bankuaren izaeraren eta helburuen aurka eraginik ez izatea bermatze aldera.

#### **28. Nola jartzen da harremanetan bankua AGZen titularrekin?**

Urtero, herrialde ezberdinetako AGZen titularrek gonbita jasotzen dute Triodos Banken Akzioak Kudeat-

zako Fundazioaren (SAAT, ingelesezko sigletan) Gordailuen ziurtagirien titularren Batzarrean eta Triodos Bankeko Akziodunen Batzar Orokorrean parte hartzeko. Bi batzarrak Bankuaren nazioarteko egoitza nagusian antolatzen dira, Zeist-en (Herbehereak).

### **29. Posible al da AGZen Espainiako titularrekin elkartzea?**

AGZen edozein titularrek parte har dezake Triodos Bank Españak urtero antolatzen dituen informazio-bileretan. Bilera horren helburua da Triodos Taldeak nazioartean eta, zehazki, Triodos Bankek Espainian lortu dituen eta lortu asmo dituen emaitzen berri ematea.

### **30. Zer egingo du etorkizunean Triodos Bankek bere kapital soziala areagotzea lortzen duenean?**

AGZen bitartez Triodos Bank NVren kapital sozialean inbertitzea erabakitzen baduzu, inbertsio horri esker finantza kaudimen eta gaitasuna eskaintzen dizkiozu Bankuari, aurreikusitako hazkundeari aurre egin ahal izateko, eta, horrela, gure jardunaren eragin positiboa beste herrialde batzuetan areagotu dadin. Hauek dira Triodos Banken funtzionamenduaren ardatzak:

1. Orokorrean, eskaintza honen bitartez lortutako funtsak, bankuak jasotzen dituen ez-banatutako etekinekin eta dagoeneko existitzen den kapital sozialarekin batera, funts propio izendatzen ditugu. Funts propioek bankuaren finantza sendotasuna islatzen dute, bankuak bere bezeroei eskain diezaiekeen kredituaren muga finkatzeko balio dute, eta beste helburu batzuetan (bankuaren hedapena, esate baterako) inbertitzeko bitartekoa izan daitezke.
2. Triodos Bank NVk akzioetarako gordailuen ziurtagiriak jaulkitzen ditu gizartearentzat onuragarriak diren erakunde eta enpresei maileguak eskaintzen jarraitu ahal izateko. Termino orokorretan, Bankuak bere kapital soziala zortzi eta hamabi bider artean inberti dezake. Bere bezeroei mailegu gehiago eskaintzeaz gain, kanpainen bitartez eskuratutako funtsak bankuaren hazkundera ahalbidetuko dute.

### **31. Zein izan da Triodos Bank NVren AGZen bilakaera orain arte? Zeintzuk izan dira AGZen titularrei abonatuak dibidenduak?**

Historikoki, dibidenduak egonkorak izan dira, baina iraganeko errentagarritasunek ezin dute etorkizuneko errentagarritasunik bermatu. Zenbait pertsonarentzat, AGZetan inbertitzea okerreko erabakia izan daiteke; horrenbestez, produktu hau zuzentzat egokiena den erabaki aurretik, gomendatzen dizugu aholkularitza profesional eta independente batera jotzea.

AGZetan inbertituz gero, European punta-puntakoa den banku etiko eta jasangarriaz arduratzen diren akziodunen artean egongo zara. Triodos Banken lana eta helburuak gertutik ezagutu eta aztertu ahalko dituzu. Bankuak erakunde eta enpresa jakinetan besterik ez du finantzatzen eta inbertitzen, gaur egungo gizarte- eta ingurumen-larrialdi handieneko erronketarako konponbide errentagarri eta jasangarriak dituzten erakunde eta enpresetan, alegia.

AGZetan inbertitzea erabakiko bazenu, zure dirua erabili ahalko duzu hobea eta jasangarriagoa den etorkizuna eraikitzeko.

### **32. Nola jakin dezaket errentagarritasun egokia eskuratuko dudala?**

Triodos Bankek 32 urteko esperientzia erreala du European, gizartearekin, ingurumenarekin eta kulturarekin lotutako sektoreetan. Herbehereetan eta Belgikan AGZ saltzeko zazpi kanpainatik gora antolatu ditugu dagoeneko, eta honakoa Espainiako seigarrena da. Behar duzun informazio guztia 2018eko ekainaren 14koa kanpainaren Liburuxka ofizialean dago (ingelesezko bertsio osoa eta gaztelaniazko laburpena), Herbehereetako Finantza Merkatuaren Agintaritzan (AFM) erregistraturikoan. Hori ere eskuragarri duzu, gaztelaniaz, bankuaren [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren [www.cnmv.es](http://www.cnmv.es) webgunean liburuxkaren laburpena ere baduzu, gaztelaniaz. AGZ eskuratzeko edozein erabaki hartu aurretik, zinez gomendatzen dizugu AGZekin lotutako dokumentu guztiak irakurtzeko (besteak beste: dagokion kanpainaren liburuxka ofiziala, haren itzulpen eta laburpenak, SAATaren estatutuak (ingelesez), SAATaren Administrazio Baldintzak (ingelesez), Triodos Bank NVren Estatutuak, urte bakoitzeko txostenak eta auditoria-txostenak, etab.), eta, batik bat, "Factores de riesgo" atala kontsultatzeko kanpainako liburuxka ofizialean eta "Análisis del riesgo del producto de inversión CDA desde la triple aproximación de rentabilidad, seguridad y liquidez" eta "Información fiscal relevante para los titulares de CDA" izenburuko dokumentuetan.

### **33. Da AGZ besteak beste ondasun eta eskubideak atzerrian dago ( 720 eredia ) adierazpena beharrezkoa da?**

Bai , arau -atalaseak gainditzen badira 720 eredia .

AGZ eman eta kudeatzen Holandan finantza-tresnak dira , Espainiako Triodos Bank adarrean dago horiek merkaturatzeko mugatuta . Horretarako, zergadunak behar ereduaren 720 AGZ eta beste edozein balore eta eskubideak gero atzerrian dago , besteak beste:

( I ) AGZ balioa banaka edo beste edozein balio edo eskuineko atzerrian kokatutako gainditzen 50.000 € ( ez zuten alde aurretik aurkeztu bada 720 eredia ) edo ,

( li ) AGZ balioa aldakuntza 20.000 € gainditzen jasaten ( azken alditik zergadunak aurkezpen eredia 720 behartu zuten ) .

## **BANKUARI BURUZKO OHIKO GALDERA ETA ZALANTZAK**

### **34. Nola lan egiten du Triodos Bankek?**

Triodos Bankek banku-negozio eredu berritzailea sustatzen du, gardentasunean eta jasangarritasunean oinarritutakoa eta gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren sektoreetako enpresak eta proiektuak finantzatzen espezializatua. Bere finantza-jardunari dagokionez, Triodos Bankek harremanetan jartzen ditu beren diruaren erabilera arduratsuagoa topatu nahi duten aurreztaile eta inbertitzaileak gizartearen, kulturaren edo ingurumenaren arloan jarduera jakin bat aurrera ateratzeko finantziarioa behar duten ekintzaile edo antolatzaileekin.

Triodos Bank espezializatuta dago mailegu eta inbertsio-aukerak ekonomia errealeko sektore jasangarrietan, Europako zenbait herrialdetan beti ere, aplikatzeko. Finantza entitate gisa, honakoak eskaintzen ditu: banku-zerbitzuak, funtsen, aktiboen zein proiektuen kudeaketa, eta finantza-modu jasangarriak.

### **35. Zein da Triodos Banken izaera?**

Gaur egun, Grupo Triodos-ek —Triodos Bank NVk, bere sukurtsalek eta inbertsio-funtsek osaturikoa— 7.200 milioi eurotik gorako guztizko balantzea kudeatzen du, 530.000 bezero baino gehiago ditu Europan eta 36.000 inbertsioko portfolioa du, balio sozial erantsia barne. Bankua 1980an sortu zen, eta gaur egun Herbehereetan, Erresuma Batuan, Belgikan, Espainian eta Alemanian dago.

Hazkunde sendo hori negozio-eredu jakin baten emaitza da. Berau gardentasunean oinarritzen da, eta baita ekonomia errealearekin zerikusia duten eta gizarte, kultura eta ingurumenaren ikuspegitik esanguratsuak diren ekimenen finantziarioan ere. Horiek etengabe garatzen ari diren sektoreak dira, eta proiektu berriek pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta gure ingurumena zaintzea dute helburu, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik gaur egungo erronka esanguratsuenetariko batzuetarako konponbideak topatzeaz batera.

Triodos Bank banku-fitxa Herbehereetan duen kreditu-entitatea da, honako bankuek ikuskatzen dutena: Europako Banku Zentralak (EBZ), Herbehereetako Banku Zentralak eta sukurtsalak dituen herrialdeetako banku zentralak. Espainian, Espainiako Bankuak erregulatzen du Triodos Banken jarduna, likidezia, gardentasun eta interes orokorreko araudiari dagokionez; eta Espainiako Balioen Merkaturako Batzorde Nazionalak, inbertsio-zerbitzuen arloan. Hona hemen Triodos Banken helburuak:

- Pertsonen bizi-kalitatea sustatzen duen eta giza-duintasunari erreparatzen dion gizartea eraikitzen laguntzea.
- Pertsona, enpresa eta erakunde baten diruaren erabilera arduratsugoaren kontzientzia bultzatzea, eta, horrela, garapen jasangarria sustatzea.
- Gure bezeroei finantza-produktu jasangarriak eta kalitatezko zerbitzua eskaintzea.

### **36. Ba al dago Triodos Bankek burtsan kotizatze epe laburrerako proiekturik?**

Bankuak ez du horrelakorik aurreikusten.

### **37. Nola inbertitzen du Triodos Bankek bere likidezia?**

Triodos Bankek nahiko oinarritzko eredia du. Beste hitz batzuetan, aurreztaileen dirua erakartzen du, horien bitartez ekintzaileei maileguak eskaini ahal izateko. Maileguetarako erabili ez diren likidezia-soberakinak Estatu-bonuetan inbertituta egon daitezke Bankuak erabiltzen dituen arte. Triodos Banken ereduak ez du espekulazioa onartzen, eta, hortaz, Bankuak ez du konpainia kotizatuetan zein finantza-produktu deribatu edo konplexuetan inbertitzen.

### **38. Triodos Bank konpainia handiago baten baitan al dago?**

Ez. Triodos Bank independentea da eta independentea izaten jarraitu nahi du. Gainera, Triodos Bank NVen akziodun bakarrak (Triodos Bank NVren Akzioak Kudeatzeko Fundazioa (SAAT)) jaulkitzen dituen AGZ eskaintzaren bitartez, Bankuaren akzioak zirkulazioan jarri beharrean Triodos Banken izaera eta independentzia bermatzea lortzen da.

### **39. Triodos Bank salgai al dago edo posible al da etorkizunean salgai egotea?**

Ez. Lehenik eta behin, Triodos Bank babestuta dago, titular bakoitzak eduki dezakeen AGZ kopurua ere mugatuta baitago; izan ere, titular bakoitzak jaulkitako AGZ guztien % 10 eduki dezake asko jota, zuzean zein partzialki. Era berean, gordailuen ziurtagirien titularrek 1.000 botoko eskubidea dute, asko jota, AGZen titularren batzarrean, 1.000 AGZ baino gehiago duten kasuan ere.

### **40. Zeintzuk dira Triodos Bankek bere inbertsio-politikan aplikatzen dituen irizpideak?**

Informazio hori eta bankuak finantzatu dituen ekimen batzuen adibideak, gizartearekin, kulturarekin eta ingurumenarekin lotutakoak, topatuko dituzu [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean, “Criterios de financiación” atalean, “A quién financiamos” barruan.

### **41. Triodos Bankek emaitza onak eskuratu ditu 2015an, eta bere guztizko balantzean oinarrituta % 17ko hazkundera izan du. Hori horrela bada, zergatik handitu nahi du bere kapitala? Finantza arazoei aurre egin behar al die?**

Ez. Triodos Bankek azken urteotan izan duen hazkundera espero baino handiagoa izan da. Geroz eta gehiago dira Bankuaren eredu etiko eta jasangarriarekiko interesa dutenak. Bankuak posizio finko eta seguru batetik abiatuta merkaturatu ditu kapital-jaulkipen hauek, hazkunderaren lorpenei ekiteko eta hurrengo hiruzpalau urteetan bere guztizko balantzea, bezero kopurua eta mailegu-kartera bikoizteko asmoz. Jaulkipen honi esker, Bankuak kapital sozialaren oinarria sendotu ahalko du, ekonomia errearekin zerikusia duten eta gizarte, kultura eta ingurumenaren ikuspegitik esanguratsuak diren enpresa eta proiektu jasangarriei maileguak eskaintzen jarraitze aldera.